



UDALERRIKO EKONOMI JARDUEREN GAINKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2020/10/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020/12/23an

UDALERRIKO EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu; horretarako, Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11. artikuluan aurreikusitako ahalmenak darabiltza.

II. GUTXIENEO KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua

Udalerri honetan zergapetutako jardueretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga honen tarifetan ezarritako gutxieneko kuotak hartu eta 1. ERANSKINEAN azaltzen diren koefizienteen arabera gehituko dira.

3. artikulua

Udalerrian zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikuluaaren arabera gehitutako kuotei 2. Eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4. artikulua

Gehikuntza-koefizientea eta kokapen-indizea -ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluetan finkatu direnak hurrenez-hurren- ez zaizkie aplikatuko ez kuota probintzialesi, ez kuota bereziesi, ezta Foru Errekarguari ere.

5. artikulua

Aurreko 3. artikuluan aipatutako indizeak aplikatu ahal izateko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egin dira 2. Eranskinean zerrendatutako kategorien arabera.

III. TRIBUTUZKO KUOTA

6. artikulua

Zerga honen tributu-kuota zehazteko, tarifek finkatutako gutxieneko kuotak hartu eta gehitu egin beharko zaizkie Ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluen eta, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagozkien indize eta koefizienteak.

IV. GESTIO ARAUAK

7. artikulua

1. Zerga hau kudeatu, kitatu, bildu eta ikuskatzeko gaitasunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango dira, betiere Udaltzako Osoak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, eta horretarako dagokion hitzarmena izenpetu beharko da.

2. Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilekoaren barruan. Halaber, aldizkari ofizial horren bidez ere argitaratuko da hitzarmen horien salaketa.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa horrela bada ere, kuota probintzialesi eta bereziesi dagokienean Foru Aldundiak izango ditu han adierazitako ahalmenak.

V. AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren Eranskinak indarrean 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko dira, eta aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez diren bitartean aplikatuko dira.

1. ERANSKINA

Finkatutako gutxienerako kuoten gehikuntza koefiziente bakarra: 2,2

Halaber, zerga hau onartzen duen 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11.artikuluan xedatutakoari jarraituz, negozio-zifraren zenbateko garbiaren arabera ponderazio koefizientea ezarriko da.

2. ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena:

Kategoria: Bakarra

Indizea: 1

3. ERANSKINA

13/1996 Foru Arauaren arabera Foru Aldundiak egitasmo estrategiko bezala izendatutako proiektuek %95eko hobaria izango dute.

4. ERANSKINA

-%50eko hobari bat ezartzea urtean enplegu iraupen mugagabeko eta berriak sortzen dutenentzat, urteko langile kopuruaren batz bestekoa kontuan izanda. 1 eta 5 langile artean dutenek urte bukaerako langile plantillan batz besteko %20ko langile berri izan beharko dute. 6 langile edo gehiago dutenek urte bukaerako langile plantillan batz besteko %10eko langile berri izan beharko dute. Betiere, lan-jardun osoko langileak edo ekibalentziak hartuko dira kontutan.

-Etekin garbia negatiboa duten zergadunentzat hobaria aitortzea, zergadun horien eragiketa bolumenaren arabera; eragiketa bolumena 3.000.000 €tik beherakoa bada hobaria %25ekoa izango da, eragiketa bolumena bada 3.000.001 eta 6.000.000 € artekoa hobaria

izango da %15koa, eragiketa bolumena bada 6.000.001 eta 10.000.000 € artekoa hobaria izango da %7koa eta 10.000.001 €tik gorakoek ez dute hobaririk izango galerak izan arren.

Bai eragiketa bolumenaren datua eta baita etekin negatiboarena ere, biak, indarrean dagoen epealdia baino bi epealdi aurrekoak izango dira.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA